



ALDERDIA Berriak

EBB

2001eko Uztailaren 9an

138. alea

**EUZKO ALDERDI JELTZALEAK
ETA EUSKO ALKARTASUNAK
VII LEGEGINTZALDIKO EUSKO JAURLARITZA
OSATZEKO
IZENPETZEN DUTEN KOALIZIO AKORDIOA**

Gasteiz, 2001eko uztailak 6

PROGRAMA-KONPROMISOAK

- 1.- Bakerako, bizkidetzarako eta normalizazio politikorako eszenatoki berria.
- 2.- Ekonomi hazkunde jasangarrirako eredu berria.
- 3.- Prestakuntza eta enplegu eredu berria, gizarteratzean sakontzeko eta Jakintzaren Gizartean aurrera egiteko.
- 4.- Gizarte eta kultur eredu berria.
- 5.- Autogobernuaren eredu berria.

1.- BAKERAKO, BIZIKIDETZARAKO ETA NORMALIZAZIO POLITIKORAKO ESZENATOKI BERRIA

- Euskal Herriak, bere etorkizuna Bakean eta askatasunean eraikitzeko, eta osatzen duten pertsona guzti-guztien duintasuna eta giza-eskubideak errespetatzeko eskubidea dauka. Euskal gizarteak behin eta berriz azaldu duenez, indarkeria eta estortsioa zalantzarik gabe eta argitasun osoz gaitzesten ditu, ETArri armak behin betirako uztea exijitu dio eta, gainera, bere ordezkari politikoei, distentsio eta elkarrizketa prozesu bati ekitea eskatu die, horrela, gure artean dauden indarkeriari eta normalizazio politikoaren gatazkari irtenbidea emateko.
- Horregatik, Bakea, normalizazio politikoa, bizikidetza eta Euskadiko gizarte eraikuntza, EAJ/PNV eta EA-ren euskarriak dira, ez bakarrik hurrengo Legengintzaldi honetarako Gobernu Programa eratzeko; etorkizun hurbileko etorkizunean gure estrategia politika gidatuko duen zutabe nagusia da ere. Ondorioz, Bakeak, bizikidetzak eta elkarrizketa politikoak izango dute laster eratuko den Eusko Jaurlaritzaren lehentasun osoa.
- Bakea, bizikidetza eta normalizazio politikoa lortzeko Eusko Jaurlaritzak aurrera eramango dituen ekintzen hiru zutabe nagusiak, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak egindako Deklarazioetan azaltzen dira: konpromiso DEMOKRATIKOA (*“estatutuaren ituna osorik bete eta errespetatzeko”*, 2000ko urriaren 25ekoa), ETIKOA (*“pertsona guztien bizitzeko eskubidea eta askatasunak defendatzeko”*, 2000ko abenduaren 20koa) eta SOZIALA (*“konponbidea”*, 2001eko otsailaren 8koa).

A) Konpromiso etikoa, pertsona guzti-guztien bizitza eta giza-eskubideak defendatzeko.

- EAJ/PNV eta EA alderdiek, konpromiso osoa hartzen dute, Gobernuaren ekintzatik, pertsonen eskubideak, astasunak eta seguritatea defendatzeko behar diren giza eta material baliabide guztiak erabiltzeko. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak, hiritarren seguritatearen arloan dagozkion eginkizun guztiak garatuko ditu, indar bereziz, eta, horretarako, Zuzenbideko Estatuak botere publikoen esku jartzen dituen letgezko tresna guztiak erabiliko ditu.
- Era berean, biolentzia eta terrorismoa jasan duten eta oraindik ere jasaten duten pertsona guztiekiko eta giza eskubideen edozein urratze jasaten duten pertsonen elkartasun-ekimenak eta onespen etiko, moral eta materiala bultzatuko ditu Eusko Jaurlaritzak.
- Azkenik, Eusko Jaurlaritzatik konpromisoa hartzen dugu demokrazia eta bakea sendotzeko helburua duten borondate eta ahaleginak bateratzeko, eta indarkeria eta giza-eskubide eta askatasunen urratzearen aurkako gehiengo sozial eta politikoetarako espazioak sortzen dituzten erantzun bateratuak biltzeko.

B) Elkarrizketarekiko konpromiso politikoa, Bakea eta bizikidetzaren lortzeko tresna baita.

- Bakea lortzeko helburua ez da proiektu politiko zehatza ezartzearen menpe jarri behar; halaber, proiektu politiko demokratikoen legezko defentsa ere, ez da Bakea lortzearen menpe jarri behar.
- Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzatik, alderdi politikoen arteko baretzea eta hurbilketa bultzatu eta beharrezkoak diren zubiak eraikiko ditugu, aurreko konfrontazioa gaindituz, elkarrizketa buru duen aro berri bati aurre egiteko, Bakea lortzeko tresna eta, gure gizartean, bai normalizazio politikoan eta bai bizikidetzan dagoen gatazkaren konponbidea delakoan.
- Elkarrizketa irekia garatzea, eta aurretiazko baldintza politikorik jarri barik, inor kanpoan utzi gabe eta baldintzapen politikorik gabe, ideiak soilik bide baketsu eta demokratikoen bitartez defendatu behar direlako printzipioaren errespetutik.

C) Konpromiso demokratikoa, euskal gizarteak hartzen dituen erabakiak errespetatzeko.

- Euskal gizartearen gehiengoak, bere borondatez eraikitako Erakunde eta marko juridikoekiko errespetu osoz zuzenduko ditu Eusko Jaurlaritzak bere ekintzak, Erakunde eta marko juridiko horiek aldatzeko eta gaurkotzeko aukeren legitimitate demokratikoarekiko errespetuari utzi gabe.
- Hori dela eta, bai Eusko Jaurlaritzak, bai osatzen duten alderdi politikoek, konpromisoa hartzen dute, elkarrizketa prozesutik sortzen den edozein akordio politiko, euskal gizarteak, bere etorkizuna askatasunez, bakean eta bide demokratikoen bidez aukeratzeko duen eskubidea erabiliz, berres dezan. Halaber, eszenatokiak erraztuko ditu, euskal gizarteak, horren inguruan kontsultatua izateko duen eskubidea errespetat dadin eta erabiltzeko aukera izan dezan.

2.- EKONOMI HAZKUNDE JASANGARRIRAKO EREDU BERRIA

- Benetan krisi ekonomiko larria pairatu ondoren, azken urte hauetan euskal gizarteak gauza izan da gure ekonomia berriz ere lehiazteko eta garatzeko parametroetara eramateko. Hala nola:
 - 90eko hamarkadan, gure Barne Produktu Gordina Espainiakoa baino %9 gehiago hazi da, eta Europar Batasuneko batezbestekoa baino %17 gehiago.
 - Azken hamarkadan, Euskadin, Europar Batasuneko batezbesteko *per capita* errentara heldu gara eta, seguruenik, baita gaintu ere.

- Azken hamarkada horretako hazkuntza ekonomikoari esker, ia 150.000 lanpostu garbi sortu dira.
- Azken sei urteetan, gure biztanleria aktiboaren langabezia tasa %25etik %12ra jaitsi da.
- Aurrera egiten jarraitu behar dugu. Lehiakortasunean eta ekoizkortasunean hazten jarraitu behar dugu. Elkartasuna eta oreka kontutan hartuta. Eusteko moduko hazkuntza eta lurraldeen arteko harmonia zainduta.
- Lortu ahal izateko, jakin badakigu euskal ekonomiaren lehiakortasun eta garapenaren motoreak Berrikuntza, Kalitatea, Prestakuntza eta Lankidetzaz bezalako baloreak sustatu behar direla.
- Halaber, argi daukagu horrek benetako iraultza kulturean euskal gizarte osoa inplikatzeko aitzindaritzarako konpromisoa eskatzen duela; iraultza horren ardatza pertsonak dira eta, oinarria, prestakuntza eta lankidetzaz publiko-pribatua, horrela, 2006. urtea baino lehen, Euskadi era eraginkorrean Informazioaren Gizartean integratuta egon dadin.
- Testuinguru hori dela eta, EAJ/PNV eta EA-ren erronkak honako hauek dira:
 - Sustapen ekonomikoaren banatzaile nagusiak izango diren Enpresa Txiki eta Ertainak (PYMEak), berritzaileak izateko gaitasunaren bidetik ekiteko eta arriskuei aurre egiten jarraitzeko helburuz.
 - Gure ekonomia nazioarteko bihurtzea eta kanpoan bultzatzea.
 - Merkataritzako arlo modernoa, integrazio eta elkartze maila hobekuntza izango dituen.
 - Enpresa eta ekonomia mailan izari zehatz eta zurruna izango duen arlo turistikoa.
 - Landa-ingurune biziak, nekazaritzako ustiategiak modernizatuz, bertako biztanleria aktiboa gaztetuz, eta emakumeen integrazioa sustatuz.
 - Arrantza arlo indartua, oinarritzako zerbitzuak hobetuz eta arloaren aniztasuna bultzatuz.
 - Energiaren erabilgarritasuna baldintza ahalik eta onenetan bermatzeko helburua duen politika, horniduraren segurtasunari, kostuari eta ingurumenaren gaineko eraginari dagokionez.
- Beste alde batetik, gure ustez, hazkuntza eta garapen ekonomiko horiek eusteko modukoak izan behar dute, bitartekoen erabilera eta ingurumenaren sistemari dagokionez. Ildo horretatik, EAJ/PNV eta EA-ren proposamenak honako hauek dira:

- Lurraldeak antolatzeke politika orekatua, hirien garapen jasangarria bideratuko duena.
 - Ingurumenari buruzko politika, alde batetik ingurumen osasungarria eta, bestetik, ongizate ekonomikoa eta gizarte justizia bilduko dituena.
 - Garraio eta komunikazioen euskal sistema, Europan integratzeko eta lurraldeen arteko batasuna eskuratzeko.
 - Euskadiko trenbide sare berria.
 - Bide, portu eta aireportuetako azpiegituren kudeaketa propio berria.
- Erronka hauek guztiak gure ahaleginak erabiliz eskuratzeko, euskal hiritarrok hazkunde eta elkartasunaren zerbitzura egongo den zerga eta finantza politika garatuko dugu. Eta hori, gure autogobernurako funtsezkoa den tresna baten bidez egingo dugu: Ekonomi Itunaren bidez, alegia. Horregatik, EAJ/PNV eta EA, Eusko Jaurilaritza osatzearen erantzukizunetik:
 - Iraungipen datarik gabeko Ekonomi Ituna exijitzen dugu, euskal erakundeek duten arautzeko gaitasuna sendotu eta sakonduko duena, Europar Batasunak, gainerako zerga sistema orokorrekin egiten duen bezala, aintzatetsi eta kontuan hartuko duena eta gure zergen emaitzako bitartekoak Euskadin geratzea bideratuko dena.
 - Gure zerga sistema ekitatibo -gurean berdin ordaintzen dute berdinek, eta desberdin desberdinek- eta aske -beharrizan ekonomikoei eta gizartekoei aurre egiten jarraitzeko- bihurtzen duten baldintza horiek areagotu nahi ditugu, aurrerantzean gure Lurralde Historiko eta Euskadiko Erakunde Erkideen bitartez koordinatuz.
 - Gastu publikoaren arloan, egitura erreformei lehentasuna eman nahi diegu etorkizunean ere; era berean, ekonomia eta enplegua bultzatu nahi ditugu, gizon eta emakume guztion artean gizarte justuago eta soidarioago eraikitzen jarraitzeko, aurrekontu-orekaren oinarria mantenduz, Administrazioak, ekonomi gorabeheren aurrean, zikloen aurkako faktore jokatu dezan.

3.- PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU EREDU BERRIA, GIZARTERATZEAN SAKONTZEKO ETA JAKINTZAREN GIZARTEAN AURRERA EGITEKO

- Hezkuntza, prestakuntza eta lan arloetan martxan jarriko dugun politikaren oinarria, abiaburu batean datza: Euskadiko hiritar guzti-guztiekin izan behar dute bizitza osoan zehar ikasteko modua, halako moldez non eskubide

horrek bermaturik egon behar baitu, pertsonen adina, maila, baliabide edo lan-merkatuan duten egoera edozein delarik ere.

- Hori horrela izan dadin, EAJ/PNV eta EA alderdiok ondokoa proposatzen dugu:
 - Gure hezkuntza-sistemak jarrai dezala etika zibila transmititzen lantzen, askatasun, begirune eta tolerantziaren balore unibertsalak barneratzen dituen etika zibila izaki.
 - Etorkizuneko gure eskolan, ezagutzen eta egiten ikasteari euts dakiola. Baita ere izaten eta elkarrekin bizitzen ere.
 - Adostasun zorrotz eta zabala dela bide, Eskola Akordio berria irits dezagula, XXI. mendeko eskola berri horretarako.
 - Lanbide Heziketarako gure politika orokorra izan dadila, eta enplegurako prestakuntza izan dezala xede.
 - Gure Unibertsitatea, geroz eta gehiago, euskal kulturaren bilgune sendo eta jardule eta Euskadiren garapenaren eragile izaten jarrai dezala.
- Era berean, gutxien dutenen zerbitzura dagoen enplegurako politika baten aldeko apustua egiten dugu. Enplegu politika horren lehentasunak honako hauek izango dira: erabateko enplegua lortzea; enplegu nahiz jarduera tasak Europar Batasunekoekin parekatzea, emakumeei lehentasunaz emanez; kontratazio baldintzen behin-behinekotasuna eta taldeen arteko diskriminazioak, bai soldata baldintzetan, bai zama eta erantzukizunetan zuzentzea; eta, azkenik, lan istripuen tasak murriztea. Enplegu zerbitzuen arloan erabakiak hartzeko eta kudeatzeko erabateko ahalmena ez badugu ere (gizarte-lanaren eta Gizarte Segurantzaren arloan legeak egiteko gaitasuna ere barne, enpleguko eta gizarte babeseko politikak lantzeko), errebindolatzeaz gain, EAJ/PNV eta EA ziur gaude, euskal hiritarren elkartasunezko ahaleginei esker, lanpostu gehiago eta kalitate handiagokoak lortu ahal izango ditugula.

• **4.- GIZARTE ETA KULTUR EREDU BERRIA**

- Gure erkidegoko pertsonarik baztertuenezikiko gizarte elkartasunean oinarrituako eredu handi bat eratu nahi dugu Euskadin.
- EAJ/PNV eta EA-ren iritziz, eredu horrek aurrera egin behar du, erakundeen arteko koordinaziotik eta gizarte izaera duten herri politiken ebaluaziotik, honako oinarri hauekin: beharrik handienak dituzten taldeei eman beharreko lehentasunezko babesa; eskualderik baztertuenezikiko konpromisoa; gizarte-prestazioen laguntzak egokitzeko eta arian-arian gehitzeko konpromisoa; seme-alabak dituzten familiei eman beharreko laguntza; adineko pertsonak

eta nolabaiteko menpekotasuna dutenak zaintzeko gizarte eta osasun espazioa finkatzea; eta etorkinen gizarte fenomenoari eman beharreko erantzuna, aurreikuspen eta plangintzaren bitartez.

- Halaber, berdintasunerako politikak areagotu behar direla sinesten dugularik, EAJ/PNV eta EA alderdiok, honako hauek jandetsi nahi ditugu:
 - Gizon eta emakumeen integrazioa eta elkarrekiko integrazio-politika gauzatzea, aukera berak eta tratu bera izan ditzagun.
 - Gure gazteek euskal gizartean protagonismoa eta hizpide erabakiorra izan dezaten hartu genuen konpromisoa berrestea, zeren eta horrela, gaur egun gazteek Euskadin dituzten arazo zehatzekiko erantzun orokorra ematea lortuko baitugu.
- Elkartasun-eredu hori eraginkorra eta kalitatezkoa izan dadin, EAJ/PNV eta EA-k, gizarte-kohesioa sortzen duten politikak garatzeko konpromisoa hartzen dugu. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzatik honako hau bultzatu nahi dugu:
 - Etxebizitzaren arloko politika lantzea, pertsona ororen eskura etxebizitza duina izateko aukera eman ahal izateko.
 - Justiziaren arloko politika lantzea, Justizi Administrazioa zerbitzu arin eta eraginkorra, eta hiritar guztiek errazkiro iristeko modukoa bilakarazteko oztopoak kentzen dituena.
 - Osasunaren arloko politika lantzea, osasun zerbitzu orokorra eta kalitate handikoa sendotzen duena.
 - Kontsumitzaileak babesteko politika lantzea, ondasun eta zerbitzuen eguneroko kontsumoan eta erabileran, hiritarren interesez arduratzen dena.
- Beste alde batetik, EAJ/PNV eta EA alderdiok kultur politika elkarbiltzailea eta munduarekiko irekia nahi dugula baieztatzen dugu. Gure kultur politikak honako ezaugarri hauek izango ditu: anizkoitza, kohesioegilea, garapena bultzatuko duena, dinamikoa eta modernoa. Horretarako, kultura mantendu eta gizarteratzeko beharrezkoak diren kultur azpiegiturak garatu nahi ditugu; horrela, kulturaren azalpen ezberdinetan, sormen eta espresioaren sustapen eta bultzada eta Euskadiko kultur industriak sendotzeko neurriak bermatzeko.
- Ildo horri jarraiki, gure ustez ezinbestekoa da euskararen erabilera testuinguru eleanitzean sustatzeko politika sakontzeari eustea; Euskadiko errealitate soziolinguistikioari eta gure gizartearen gehiengoaren nahiari egokitutako hizkuntza politika egin nahi dugu, azken batean, benetako elebitasuna lortzeko xedez.

- Azkenik, EAJ/PNV eta EA-k, Eusko Jaurlaritzatik, industria, teknologia eta gizarte-prozesua bateratzea gauzatuko duen gizarte-komunikabideen arloko politika ahalbideratuko dugu. Horrela, ikus-entzunezko herri sektore sendo eta lehiakorra indartu nahi dugu, berdintasun eta tolerantziari dagozkion baloreak defendatu eta sustatzen dituen, programazioen kalitatea bermatzen duena eta, azkenez, gutxiengoei arreta berezia eginik, kultur partaidetzarako eremu irekia eratzen duena.

• **5.- AUTOGOBERNUAREN EREDU BERRIA**

A) Gure Autogobernua osatu eta gaurkotu.

- EAJ/PNV eta EA-ren iritziz, lehenbailehen bete behar da Gernikako Estatutua, Eusko Legebiltzarrak transferentziei buruzko txostenetan behin eta berriro adierazi izan duen bezala. Estatutua erabat betetzea baztertu ezinezko eta lehenetsi beharreko premia da.
- Lehentasunezko helburu horren betetzea albora utzita, eta arestian aipatu ditugun abiaburuetariko bat gogoan (hau da, euskal gizarteari kontsulta egiteko aukera aintzakotzat hartu behar delakoan, bere etorkizun politikoa askatasunez, bakean eta demokrazian erabaki ahal dezan), baieztatu nahi dugu elkarrizketa eta negoziaketaren bideak jorratzeko prest gaudela ordezkariak duten indar politiko guztiekin batera eta, horretara, ahalik eta adostasunik zabalena lortu nahi dugula, gure Herria erabateko normalizazio politikora irits dadin.
- Beraz, Euskal Herriak bere autodeterminazio-ahalmena aintzatetsi dakion dauka eskubidea Eusko Legebiltzarrak 1990ean onartutako eran geureganatu, defendatu eta arautu beharra abiapuntu harturik, Euskadiren marko politiko eta autogobernuaren inguruan gure programan zehazten diren konpromisoek, aintzat hartuko dituzte, Europa berriak politika, gizarte eta kulturaren alorretan euskal gizarteari ekartzen dizkion zirkunstantzia aldakor eta beharizan berriak.
- Ondorioz, gaurko Estatutuak eta Euskadiko agintaritzaren politikoak ezartzen duten markoan oinarriturik, Gobernugintzaren bitartez, honako helburu hauek lortzeko konpromisoa hartzen dugu:
 - Euskal gizartearen erabakiekiko begirunea ezartzea eta euskal gizarteak bere geroa erabakitzeko duen eskubidea aintzat hartzea.
 - Gure esparru juridiko-politikoaren Europako errealitate berriari egokitzea eta Europan eta munduan geure ahotsa izatea.
 - Autogobernu politikoaren eduki material berria definitzea, oinarri hauek guztiak izango dituelarik: gai sozioekonomikoen lan-harremanen eta gizarte babesaren arloan, elkarbizitzaren eta eskumenen marko propioa osatzeko eskubidea; ekonomia, zerga eta finantza alorreko autonomia-araubide orokorra; erakunde

autoantolamendurako ahalmen osoa; hezkuntza, kultura eta kirol sistema propioak eta euskal erakundeek, eremu guztietan - nazioarteko eremuak barne direla-, bermeak izateko eta parte eraginkorra hartzeko markoa.

- Euskal lurraldeetako erakundeekiko harremanak bideratzea.

B) Gure barruko erakunde-egituraren garapena

- Euskadiko barne-egitura, batik bat arlo politikoan eta gizartean, izugarri zabala da, erakundeen edo Administrazioaren ikuspegitik irudika litekeen baino mila aldiz zabalago eta joriagoa. Edonola ere, herri-aginteeek elkarrekin koordinaturik jardutea nahi dugu, lehen-lehenik herritarren ongizateaz arduratuz, gure erakundeen saretik, denak herriaren zerbitzuan ari direla lanean, politika eta lurraldearen arloko erabakiak, Erkidego osoan, berdintasunezko araubide erkideekin errotzen direla bermatuz.
- Oinarri horien gainean, EAJ/PNV eta EA-k gobernu-ekintza garatzeko konpromisoa hartzen dugu, Euskadiko erakundeen sarean, udalerriei eguneratutako tratamendua emateko; Autonomi Erkidegoko erakunde maila ezberdinen arteko harremanetarako arauak birformulatzeko; arlokako plangintza ezartzeko, herri erakundeen politikak taxutzeko modu gisa; eta, azkenik, Euskadiko Herri-Administrazioak eten gabe hobetzeko.

C) Europa: Proiektu erkidea.

- Guk nahi dugun Europa era federalean baturik dago, eta askea eta solidarioa da. Bertan, nortasun propioa duten Herri guztiek eroso sentitu behar dute. Hori dela eta, gure autogobernua aintzatestea nahi dugu. Euskadik presentzia izan behar du Europar Batasuneko erakundeetan, bere erantzukizun eta autonomia propioekin; mugaz gaindiko lankidetzaz sustatzeaz gain, eskualdeen arteko lankidetzaz indartu nahi dugu eta, azkenik, Herrien Europa eraiki eta lortzeko ahaleginak egin nahi ditugu.

D) Euskadi: Mundura zabaldua dagoen herri bat.

- EAJ/PNV eta EA-k apustu argia egiten dugu, Euskadiren kanpo politika osoa eta integratua lortzeko, hainbat helburu estrategiko lortu ahal izateko. Hala nola, Euskadik Europako Batasunean duen eragin politikoa eta ekonomikoa areagotzea; Euskadi bi aldetako harremanetan eskubide osoko bazkide gisa duen lekua indartzea, bai Europar Batasunaren barruan, bai kanpoan ere; garatzen ari diren herriekiko elkartasuna areagotzea; eta kanpoan Eusko Jaurlaritzako Ordezkaritzak sortzea.
- Beste alde batetik, gure Gobernuaren ekintzen bidez, Kanpoko Euskal Gizataldeei laguntza politikak finkatu eta areagotu nahi ditugu; eta Hirugarren Munduekiko elkartasun programetarako orain arte erabili diren fondoak -1998tik hona, Euskal eta Foru Erakundeen aurrekontu operatiboaren %0,7a, hain zuzen ere- mantenduko ditugu.

**ACUERDO DE COALICIÓN QUE SUSCRIBEN
EUSKO ALDERDI JELTZALEA/
PARTIDO NACIONALISTA VASCO
Y EUSKO ALKARTASUNA
PARA LA FORMACIÓN DEL GOBIERNO VASCO DE LA
VII LEGISLATURA**

Vitoria-Gasteiz, 6 de julio de 2001

COMPROMISOS PROGRAMÁTICOS

- 1.- Un nuevo escenario para la Paz, la convivencia y la normalización política.**
- 2.- Un nuevo modelo de crecimiento económico sostenible.**
- 3.- Un nuevo modelo de formación y de empleo para profundizar en la integración social y prosperar en la Sociedad del Conocimiento.**
- 4.- Un nuevo modelo social y cultural.**
- 5.- Un nuevo modelo de autogobierno.**

1.- UN NUEVO ESCENARIO PARA LA PAZ, LA CONVIVENCIA Y LA NORMALIZACIÓN POLÍTICA

- El Pueblo Vasco tiene derecho a construir su futuro en Paz y en libertad y a que se respete la dignidad y los derechos humanos de todas y cada una de las personas que lo conforman. La sociedad vasca ha expresado reiteradamente su rechazo inequívoco y rotundo a la violencia y a la extorsión, ha exigido a ETA el abandono definitivo de las armas y, además, ha demandado a sus representantes políticos que aborden un proceso de distensión y diálogo para alcanzar una solución al problema de la violencia y al conflicto de normalización política existente.
- Por ello, la Paz, la normalización política, la convivencia y la construcción social de Euskadi constituyen las bases principales sobre las que EAJ/PNV y EA deseamos articular no sólo nuestro Programa de Gobierno para esta próxima Legislatura, sino el eje fundamental que va a guiar nuestra

estrategia política en el futuro inmediato. Por lo tanto, el próximo Gobierno Vasco se planteará como prioridad absoluta el trabajo por la Paz, la convivencia y el diálogo político.

- Los tres pilares sobre los que se sustentará la actuación del Gobierno Vasco para alcanzar la Paz, la convivencia y la normalización política están constituidos por las Declaraciones del Lehendakari, Juan José Ibarretxe, relativas a los compromisos DEMOCRÁTICO (*“con el cumplimiento y el respeto del pacto estatutario en su integridad”*, de 25 de octubre de 2000), ÉTICO (*“en defensa del derecho a la vida y de las libertades de todas las personas”*, de 20 de diciembre de 2000), y SOCIAL (*“un camino de solución”*, de 8 de febrero de 2001).

A) Un compromiso ético con la defensa de la vida y de los derechos humanos de todas las personas, sin distinción.

- EAJ/PNV y EA comprometen su inequívoca disposición a movilizar, desde la acción de Gobierno, todos los medios humanos y materiales necesarios para la defensa de los derechos, las libertades y la seguridad de las personas. En tal sentido, el Gobierno Vasco desarrollará con especial intensidad todas aquellas funciones que le correspondan en materia de seguridad ciudadana a través de la utilización de las herramientas legales que el Estado de Derecho pone a disposición de los poderes públicos.
- Asimismo, el Gobierno Vasco impulsará las iniciativas de solidaridad y reconocimiento ético, moral y material a todas las personas que hayan sufrido y sufren la violencia y el terrorismo y con todas las que sufren cualquier vulneración de los derechos humanos.
- Por último, nos comprometemos, desde el Gobierno, a aunar las voluntades y esfuerzos dirigidos a fortalecer la democracia y la paz, así como a aglutinar las respuestas unitarias que generen espacios de mayoría social y política contra la violencia y la conculcación de los derechos humanos y de las libertades.

B) Un compromiso político con el diálogo como instrumento para lograr la Paz y la convivencia.

- El objetivo de la Paz no puede condicionarse a la imposición de un determinado proyecto político, ni se puede condicionar tampoco la defensa legítima de los proyectos políticos democráticos al logro previo de la Paz.
- Por ello, desde el Gobierno Vasco impulsaremos la distensión y el acercamiento entre los partidos políticos tendiendo los puentes necesarios para, superando la anterior confrontación, afrontar una nueva etapa presidida por el diálogo como instrumento para alcanzar la Paz y como camino para afrontar la solución tanto del

conflicto de normalización política como el de convivencia existente en nuestra sociedad.

- El desarrollo de un diálogo abierto, sin límites a priori, sin exclusiones y sin condicionantes políticos, desde el respeto al principio de la defensa de las ideas por vías exclusivamente pacíficas y democráticas.

C) Un compromiso democrático con el respeto a las decisiones de la ciudadanía vasca.

- El Gobierno Vasco dirigirá su proceder desde el máximo respeto a las Instituciones y a los marcos jurídicos establecidos por la voluntad mayoritaria de la sociedad vasca, sin perjuicio de respetar, asimismo, la legitimidad democrática de las opciones de cambio, actualización y modificación de los mismos.
- Por dicha razón, tanto el Gobierno Vasco como los partidos políticos que lo sustentan se comprometen a que todo acuerdo político que pueda surgir del proceso de diálogo sea refrendado por la sociedad vasca en el ejercicio del derecho que le corresponde a decidir libre, pacífica y democráticamente su propio futuro, y propiciarán, además, los escenarios para que se respete y ejerza el derecho que asiste a la sociedad vasca a ser consultada al respecto.

2.- UN NUEVO MODELO DE CRECIMIENTO ECONÓMICO SOSTENIBLE

- Tras sufrir una grave crisis económica, durante los últimos años la sociedad vasca ha sido capaz de situar a nuestra economía en parámetros de competitividad y desarrollo tales que:
 - En la última década de los 90 nuestro Producto Interior Bruto ha crecido un 9% más que el de España y un 17% más que el de la media de la Unión Europea.
 - En la última década en Euskadi hemos alcanzado, y probablemente superado, la renta *per cápita* media de la Unión Europea.
 - En la última década este crecimiento económico ha posibilitado la creación de casi 150.000 puestos de trabajo netos.
 - En los últimos seis años nuestra tasa de paro ha descendido del 25% al 12,4% de la población activa.
- Tenemos que seguir avanzando. Tenemos que seguir creciendo en términos de competitividad y de productividad. De solidaridad y equilibrio. De sostenibilidad y armonía territorial.

- Para conseguirlo somos conscientes de que los motores de competitividad y desarrollo de la economía vasca radican en profundizar en la Innovación, el Conocimiento, la Calidad, la Formación y la Cooperación.
- Asimismo, tenemos muy presente que ello requiere nuestro compromiso para liderar e implicar a toda la sociedad vasca en un gran cambio cultural, centrado en las personas, y basado en la formación y la cooperación público-privada para lograr que antes del año 2006 Euskadi esté integrada de forma efectiva en la Sociedad de la Información.
- En este contexto, EAJ/PNV y EA apostamos:
 - Por la Pequeñas y Medianas Empresas (PYMEs) como destinatarias principales de las políticas de promoción económica, con el objetivo de seguir impulsando su capacidad emprendedora y de asumir riesgos.
 - Por la internacionalización y proyección exterior de nuestra economía.
 - Por un sector comercial moderno, en el que se impulse un mayor nivel de integración y asociación.
 - Por un sector turístico dotado de la dimensión empresarial y económica precisa.
 - Por un medio rural vivo, mediante la modernización de las explotaciones agrícolas, y la promoción del rejuvenecimiento de su población activa y la integración de la mujer.
 - Por un sector pesquero revitalizado, mejorando sus servicios básicos y contribuyendo a la diversificación del sector.
 - Por una política encaminada a garantizar la disponibilidad de energía en las mejores condiciones en cuanto a seguridad de suministro, coste e impacto medioambiental.
- Por otra parte, concebimos el crecimiento y el desarrollo económicos desde la sostenibilidad en el uso de los recursos y del sistema ambiental. En este sentido, EAJ/PNV y EA nos proponemos:
 - Una política de ordenación territorial equilibrada y que propicie un desarrollo urbano sostenible.
 - Una política ambiental que cohesione la defensa de un medio ambiente saludable, el bienestar económico y la justicia social.
 - Un sistema vasco de transporte y comunicaciones para la integración europea y la cohesión territorial.

- Una nueva Red Ferroviaria de Euskadi.
- Una nueva gestión propia de infraestructuras viarias, de puertos y aeropuertos.
- Para alcanzar todos estos retos con nuestro propio esfuerzo, desarrollaremos una política fiscal y financiera al servicio del crecimiento y la solidaridad a través, principalmente, de un instrumento de autogobierno esencial: el Concierto Económico. Por ello, EAJ/PNV y EA, desde la responsabilidad de formar Gobierno:
 - Exigimos un Concierto Económico sin fecha de caducidad, que consolide y profundice en la capacidad normativa de las Instituciones Vascas, que sea reconocido y considerado en la Unión Europea como cualquier otro sistema fiscal general, y que posibilite que los recursos que generan nuestros impuestos se queden en Euskadi.
 - Queremos profundizar en los rasgos que caracterizan nuestro sistema tributario como equitativo –en el que pagan igual los iguales, y distinto los distintos-, suficiente –con objeto de seguir atendiendo las necesidades económicas y sociales-, y coordinado entre nuestros Territorios Históricos y las Instituciones Comunes de Euskadi.
 - Queremos, en el ámbito del gasto público, continuar priorizando las reformas estructurales e impulsando la economía y el empleo, para seguir construyendo entre todos y todas una sociedad más justa y solidaria, bajo el mantenimiento del principio del equilibrio presupuestario, como elemento que permita la actuación de la Administración como un factor anticíclico respecto del devenir económico.

3.- UN NUEVO MODELO DE FORMACIÓN Y DE EMPLEO PARA PROFUNDIZAR EN LA INTEGRACIÓN SOCIAL Y PROSPERAR EN LA SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO

- Nuestra política educativa, de formación y de empleo descansa sobre un principio básico, el aprendizaje a lo largo de toda nuestra vida, que debe ser una realidad para todos los ciudadanos y ciudadanas vascas y estar garantizado con independencia de su edad, su condición, sus recursos o su situación en el mercado de trabajo.
- Para lograr que esto sea así, EAJ/PNV y EA nos proponemos:
 - Que nuestro sistema educativo continúe profundizando en la transmisión de una ética civil, integradora de los valores universales de libertad, respeto y tolerancia.

- Que en nuestra escuela del futuro, se aprenda a conocer y a hacer. Y se aprenda también a ser y a convivir.
 - Que, a través de un debate riguroso y un amplio consenso, alcancemos un nuevo Acuerdo Escolar para esa nueva escuela del siglo XXI.
 - Que nuestra política de Formación Profesional tenga un carácter integral y esté dirigida a la formación para el empleo.
 - Que nuestra Universidad siga siendo, en mayor medida si cabe, parte activa y referente de la cultura vasca, y agente de desarrollo de Euskadi.
- Asimismo, apostamos por una política de empleo al servicio de los colectivos más desfavorecidos, una política de empleo que tenga como prioridades conseguir el pleno empleo, equiparar las tasas de ocupación y actividad con las de la Unión Europea, haciendo un esfuerzo prioritario en el colectivo femenino, corregir la precariedad de las condiciones de contratación así como las discriminaciones persistentes entre colectivos en la incorporación al empleo, en las condiciones salariales, y en el reparto de las cargas y responsabilidades y, por último, reducir las tasas de siniestralidad laboral. Porque, aún sin la capacidad de decisión y de gestión completa de los servicios de empleo, incluida la capacidad legislativa en materia socio-laboral y de Seguridad Social para abordar políticas de empleo y protección social, cuya reivindicación reiteramos, EAJ/PNV y EA estamos convencidos de que, con el esfuerzo solidario de todos los ciudadanos y ciudadanas vascas, podemos lograr más y mejor empleo y de mayor calidad.

4.- UN NUEVO MODELO SOCIAL Y CULTURAL

- Queremos ahondar en la construcción en Euskadi de un ambicioso modelo de solidaridad social con las personas más desfavorecidas de nuestra comunidad.
- Un modelo que, a juicio de EAJ/PNV y EA, tiene que proseguir fundamentado, desde la coordinación interinstitucional y la evaluación de las políticas públicas de carácter social, en la atención prioritaria a los colectivos más desfavorecidos; el compromiso con las zonas territoriales desfavorecidas; el compromiso de adecuar e incrementar progresivamente la cuantía de las prestaciones sociales; el apoyo a las familias con hijos e hijas; la consolidación de un espacio socio-sanitario que atienda a las personas mayores y dependientes; y la respuesta al fenómeno social de la inmigración mediante la previsión y la planificación.
- Asimismo, desde el convencimiento de la necesidad de intensificar desde el Gobierno las políticas de igualdad, EAJ/PNV y EA apostamos por:

- Hacer realidad una política integradora de y entre hombres y mujeres, con el fin de que tengamos las mismas oportunidades e igual trato.
- Reiterar el compromiso para que nuestra juventud pueda jugar un papel protagonista y determinante en la sociedad vasca, lo que precisa dar una respuesta integral a los problemas específicos que hoy vive la juventud en Euskadi.
- Para que dicho modelo de solidaridad sea eficaz y de calidad, EAJ/PNV y EA nos comprometemos a desarrollar políticas que generen cohesión social. En este sentido, desde el Gobierno nos proponemos impulsar:
 - Una política de vivienda que ponga al alcance de todas las personas una vivienda digna.
 - Una política de justicia que remueva los obstáculos para hacer de la Administración de Justicia un servicio ágil, eficaz, y al alcance de todos los ciudadanos y ciudadanas.
 - Una política de sanidad que fortalezca un servicio sanitario universal y de calidad.
 - Una política de protección de los consumidores y consumidoras que se ocupe y preocupe de nuestros intereses en el consumo y uso cotidiano de bienes y servicios.
- Por otro lado, EAJ/PNV y EA reafirmamos nuestra opción por una política cultural integradora y abierta al mundo, caracterizada por su orientación plural, cohesionadora, impulsora del desarrollo, dinámica y moderna, para lo que nos proponemos el desarrollo de las infraestructuras culturales que garanticen la conservación y la socialización de la cultura, el fomento y estímulo de la creación y expresión en las diferentes manifestaciones de la cultura y el fortalecimiento de las industrias culturales vascas.
- En este mismo sentido, también entendemos necesario continuar profundizando en una política de promoción del uso del euskera en un contexto plurilingüe, una política lingüística adecuada a la realidad sociolingüística de Euskadi y a la voluntad mayoritaria de nuestra sociedad con el fin último de alcanzar una situación de bilingüismo real.
- Por último, EAJ/PNV y EA desarrollaremos desde el Gobierno una política de medios de comunicación social que haga efectiva la conjunción entre industria, tecnología y proceso social con el fin de consolidar un sector audiovisual público vasco fuerte y competitivo, que defienda y promueva los valores de igualdad y tolerancia, garantice la calidad de las programaciones y configure un escenario abierto a la participación cultural, con especial atención a las minorías.

5.- UN NUEVO MODELO DE AUTOGOBIERNO

A) Completar y actualizar nuestro Autogobierno.

- EAJ/PNV y EA consideramos que el urgente y pleno cumplimiento del Estatuto de Gernika, de acuerdo con los sucesivos pronunciamientos del Parlamento Vasco sobre los Informes de Transferencias, constituye una prioridad y una exigencia insoslayable.
- Con independencia del cumplimiento de esta prioridad, partiendo del principio del respeto a que la sociedad vasca sea consultada para que pueda decidir libre, pacífica y democráticamente su propio futuro político, afirmamos la voluntad de impulsar vías de diálogo y negociación con todas las fuerzas políticas representativas con el propósito de alcanzar el mayor consenso posible a efectos de lograr la plena normalización política del país.
- Así, partiendo de la necesidad de asumir, defender e incorporar el derecho a reconocer la capacidad de autodeterminación del Pueblo Vasco en los términos aprobados por el Parlamento Vasco en 1990, nuestros compromisos programáticos en torno al desarrollo del marco político y de autogobierno para Euskadi tendrán en consideración las circunstancias cambiantes y las nuevas necesidades que en los ámbitos político, social y cultural plantea a la sociedad vasca la nueva Europa.
- En consecuencia, sobre la base del actual marco estatutario y de poder político en Euskadi, nos comprometemos a desarrollar una acción de Gobierno para la consecución de los siguientes objetivos:
 - La incorporación del respeto a las decisiones de la sociedad vasca y el reconocimiento del derecho a decidir su propio futuro.
 - La adecuación de nuestro marco jurídico-político a la nueva realidad europea y el tener voz propia en Europa y en el mundo.
 - La definición de un nuevo contenido material de autogobierno político, sobre la base del derecho a completar un marco convivencial y competencial propio en el espacio socioeconómico, de relaciones laborales y de protección social, en un régimen de autonomía económico-fiscal y financiera de carácter general, una capacidad de autoorganización institucional plena, un sistema educativo, cultural, deportivo, etc., propios, y un marco de garantías y de participación eficaz de las Instituciones Vascas en todos los ámbitos, incluidos los internacionales.
 - Posibilitar la relación institucional con los demás territorios vascos.

B) Desarrollar nuestra vertebración institucional.

- La vertebración interna de Euskadi tiene un alcance, sobre todo político y social, infinitamente más ambicioso y rico que lo que se puede representar a través de una perspectiva únicamente institucional o administrativa. En todo caso, queremos que los poderes públicos funcionen de manera coordinada, poniendo a la ciudadanía en un primer lugar, y actuando desde el conjunto de nuestro entramado institucional con un sentido único de servicio público, asegurando que las decisiones político-territoriales entronquen en regímenes comunes de tratamiento de la igualdad en la Comunidad entendida en su conjunto.
- Sobre estas bases, EAJ/PNV y EA nos comprometemos a desarrollar una acción de Gobierno para la consecución de un tratamiento actualizado del nivel municipal en el entramado institucional de Euskadi; la reformulación de las reglas relacionales entre los niveles institucionales de la Comunidad Autónoma; la planificación sectorial como modo de diseñar las políticas públicas; y la mejora permanente de las Administraciones Públicas vascas.

C) Europa: Un proyecto común.

- Queremos una Europa federalmente unida, libre, solidaria, y en la que todos los Pueblos con identidad propia se sientan cómodos, por lo que pretendemos lograr el reconocimiento de nuestro autogobierno y que Euskadi tenga presencia directa en las instituciones de la Unión Europea con responsabilidad y autonomía propias; fomentar la cooperación transfronteriza y reforzar la cooperación interregional; y contribuir a la construcción y consecución de una Europa de los Pueblos.

D) Euskadi: Un país abierto al mundo.

- EAJ/PNV y EA apostamos por una política exterior vasca integral e integrada que persiga la consecución de objetivos estratégicos tales como el incremento del impacto político y económico de Euskadi en la Unión Europea; el reforzamiento de la posición de Euskadi como socio de pleno derecho en relaciones bilaterales tanto dentro como fuera de la Unión Europea; la intensificación de nuestra solidaridad hacia los países en desarrollo; la creación de Delegaciones del Gobierno Vasco en el exterior.
- Por otra parte, desde la acción de Gobierno propiciaremos la consolidación e intensificación de las políticas de apoyo a las Colectividades Vascas en el Exterior, así como el mantenimiento de los fondos con los que se ha venido contando hasta el momento para los programas de solidaridad con el Tercer Mundo –0,7% del presupuesto operativo de las Instituciones Comunes y Forales desde 1998-.